

DIRU-ITURRIAK

Irabazi iturriak ezinbestekoak dira enpresa bat aurrera eraman ahal izateko, izan ere, gure produktua erosten duten bakoitzean jasoko ditugu. Gainera, irabazi hauek gure enpresa mantentzea ahalbidetuko dute.

Produktuak saltzen ditugun bakoitzean jasoko ditugu diru sarrerak, baina prezio honi prozesuan gastatu duguna kendu beharko litzaioke etekinak zeintzuk diren ezagutzeko. Altzarien prezioa 1.500€ ingurukoa izango da, baina zein altzari den baldintzatuko du prezio zehatza, adibidez, oinarrizko altzarietan, sofak, mahaiak baino garestiagoak izango dira. Enpresa handitu ahala, altzari gehiago, diseinu desberdinekin egiten joango gara eta baita bezeroen eskakizunak onartuko ditugu ere ondorioz oinarrizko prezioa aldatu egingo da.



Bestalde, produktuak erosi beharko ditugu gure enpresa aurrera eraman ahal izateko, adibidez, pintura, 12€/litroan gastatuko dugu, margotzeko tresnak, 20€ izango dira, kristalezko oholak mahiak bukatu ahal izateko 60€, sofan jartzeko eserlekuak 250€-tan erosiko dugu bukatutzat emateko altzaria eta azkenik entregatu ahal izateko 200€ gutxi gora behera kobratuko dizkigute garraio enpresak. Guzti hau lortzeko, 600€-tako gastua eduki beharko genuke, baina prezio honi autoaren mozketak gehitu behar zaio, bezeroak autoa ekarriz gero, merkeagoa izango da, hain zuzen ere, ez dugu hartu beharko auto desegitean dagoen auto bat.

Bakoitzak 500€ jarriko ditu proiektua martxan jarri ahal izateko, beharrezkoak diren produktuak erosteko eta lehendabiziko altzariak egiteko webgunean altzarien bat izan ahal izateko, eta Kutxa bankuari 1.400€-ko prestamua eskatuko diogu, izan ere, komisio gutxi kobratuko digute. Ondoren, gure etekinak banku honetan sartuko ditugu, horrela gastuak murriztuko ditugu.

Gure diru iturriak hainbat motatako bezeroengandik eskuratuko ditugu. Hasieran behintzat, guk jarritako dirua eta altzarien salmentetatik lortutakoa izango dira gure diru sarrerak, enpresa honekin hasteko funtsezkoak izango direnak, hala ere, etorkizunean bezeroak gure enpresaren produktua erostean, lortuko ditugu.

Gure diru sarrerak salmenta kopuruaren, guk jartzen dugunaren eta jasotzen dugunaren publizitatearen arabera aldatu daitezke. Hasieran, hilero hamar altzari inguru saltzen baditugu, 10.000€ inguruko diru sarrerak jaso beharko genituzke. Hala ere, salmenta kopurua igotzeko asmoa dugu eta honekin batera gure diru sarrerak ere bai.

Gure prezioak finkoak izango dira, izan ere, beti prezio bera izango dute, hau da, guk diseinatutakoak beti 1.500€-ko prezioa izango dute. Pertsonalizatuak badira, bezeroak gehitu nahi duen gauza kopuruaren arabera, prezio kopurua handiagoa izango da, 1.600-2.100€ bitartean.

Ane	500€
Maddi	500€
Aimar	500€
Irati	500€
Bankua	1.400€
GUZTIRA	3.400€

Guztira 3.100€ izango ditugu proiektua matxan jartzeko.



MAIA
Aلتzariak